

Hedadura: 77 Km²

Biztanlegoa: 1.680 biztanle

Jaiak:

- Herrikoak: Uztailaren 16an Karmengo Ama Corpus Christi: Elkartetako eguna.

Herrialdearen muina Oria ibaiaren ertzean zehar hedatzen da, Amezketa ibaiaren buruan. Udalerririk iparraldean Tolosa eta Albiztur ditu mugaide. Hegoaldean Orendain, ekialdean Altzo eta mendebaldean Ikaztegieta.

Ez dugu herri hau sortu zeneko inolako agiririk, baina Gorosabelen ustetan, oso antzinean izan zen. Ezagutzen den lehen datu historikoa 1391koa da, Tolosari uztartu zitzaionekoa. Itunea Gaztelako Enrique III.ak 1392an egiaztatu zuen. Batura honen bitartez, garai hartan oso hedatua zegoen ohitura jarraitzen du, herriko nobleziaren gehiegikeriei aurre egiteko behar hainbateko indarra zuen hiribilduari uztartuaz. Tolosari lotu zitzaizkion gainerako udalek bezalaxe, Tolosako alkatearen agintezari meneratu behar izan zitzaion, bai giza aratoetan, bai gaizkileenetan ere. Udalerririk lurraldeari mugaturik eusten zion, administrazio ekonomikoari eta mendien etekinari.

Batzu-batzuk Alegia iadanik hiribildu 1454ean bilakatu izana aipatzen dute. Hauen iritzia da Enrique IV.ak, Olmedoko guduaren (1445) emandako laguntzagatik aitortu ziela hiribildutasuna.

Tolosa hiribilduarekiko guztizko etena 1615ean gauzatu zen, ekonomia-arazoak tarte, koroak hiribildu titulua eman zionean, aurrez zehaztu zuten diru kopurua ordaintzearen truke.

Probintziako udalerririk sortu berrietan ohi-tura bilakatu zen moduan, Probintziako Biltzarretan ordezkozari k izateak zekartzan gastuak gutxitzeko beharrak, Ikaztegieta eta Orendainekin batera 1625ean Aizpuruako batura izenekoa osatzera bultzatu zituzten. 1660an bildu zen Altzo batura honetara.

Oriako ibarrean duen kokalekuak, Gaztelarako Errege Bidearen ondoan, historian

zehar hainbat pertsonaia udalerrian egotea bideratu du, hala nola, Felipe V.a, Montijoko Kontea eta Artoisko Kontea.

Nekazaritza eta abeltzantza izan dira, ibarreko tradiziozko lanbidea jarraiki, jarduerak ekonomiko nagusiak. Baina aipagarria da, gainera, industri mailako ekoizpenak duen garrantzia. XVIII. mendean iadanik bazen "Casa Real de la Fábrica de Armas" izeneko lantegia, alabardak, baionetak bularbabesak e.a. egiten zituen. Gerora, beste-lako metalgintzazko lantegiek eta paper-olek bete dute haien lekua.

HIRIGUNEA




Oria ibaiak egiten duen bideari egokiturik ilargi erdi tanke-ara du, Amezketa ibaiburuaren alboan. Egokiera hau kokalekuaren historian ere azaltzen da, balio estrategiko garrantzikoak bait ditu. Gipuzkoako Aralarerako sarrera nagusia menderatzen du.

Gurutze latinierrezko forma duen hiri-planoa du. Adar luzea Gaztelatik Behobiarako Errege Bide zaharrarekin bat dator. Adar motza berriz, gaur egun desitxuraturik azaltzen dena, Amezketa eta Altzora zihoazen bideetarako pasabide zen. Guzti honek erret-hiribilduen erako ertaroko zimentarririk bazelako hipotesia indartzen du.

Etxeak herrenka bakarreko etxesailetan tajutzen dira. San Juan kaleari dagokion gune historikoa garbi asko nabarmentzen da herriko Elizaren (*2) eta Gurutze Santuaren (*9) Gurutze-Tokiaren artean.

- San Juan Bataiatzailearen Parroki-Eliza (*2)

Antzinako eliza tamaina oso txikikoa zen eta arkupean gordetako aztarnen arabera gotiko erakoa. Zabaltze lanei XVI. mendean





Udaletxea.

ekin zitzairen, eraikuntzaren oinplano orokorra aldatuaz. Beranduago, XVII. mendearen hastapenetan portada eta dorrea egin zituzten. Azkenaldi honetan Ignacio Aranburu maixua esku-hartuzuen.

Eliza inguruetan enparantza baf dago eta bertan apaizetxea lekutzen da (*1)

■ Kaleko etxe multzoa txukun-txukun ibaia inguratzen duen eremuan kokatzen da, etxe sailen mugari kantoiak dituelarik. Eliza parean lekutzen den etxe sailak bertako arkitektur- tradizioa zenaren ezaugarri garbi-garbiak azaltzen ditu. Gehienak bi altueratako etxeak dira, harlangaitzeko hormak eta egur eta adreiluzko bilbadurak dituzte. Zenbaitetan fatxada behe aldean harlanduzkoa izan ohi da. Arkitektura mota honetako eredurik adierazgarrienak Amerikanoenea (*5), e.a. ditugu.

Plazarainoko bidea egiten duen ondoko guneak arestian aipatutako ezaugarri orokorre eusten die; batik bat egurra balkoi eta fatxadako gainerako zuloetan erabiltzea da nabarmen.

■ Herriko Plaza

Orio ibaia gurutzatzen duen zubiaren ondoan lekutzen da herriko plaza (*6). Zubi-Zaharra XVI. mendeko eraikuntza zaharra du. Bi arku ditu eta Erdiko zubibularra, guztia harlanduzkoa. Zubibularren gainean, Abaltzisketa eta Orendainerako errepidean zehar jarraitzen den gurutze-bidearen gurutzeetariko bat dago. Zubirako igarobidea Udalaren (*8) eta Zubi Muzu (*7) izeneko etxearen artean egiten da.

Plaza zabala eta erregularra da, eta hiri-bilduaren eremu prestua osatzen du. Bertan biltzen dira eraikuntzarik garrantzitsuenak.

Udaletxea (*8) XVIII. mendeko eraikuntza da, fatxada arkupetua duena. Lehen solairuko burni landuzko balkoi luzeak eta bigarren solairuko lau balkoiek txukun lekuturik aurrekalde nagusia osatzen dute. Hiri-bilduaren armarría frontoi klasiko batek burutzen du. Atzekaldeko fatxadan ibaiari begira dagoen arkupetxoa dauka.

■ Herriko Plazatik aurrera San Juan kaleko ifar aldea urratzen da, kaleburua Gurutze Santuaren (*9) gurutze-bideak markatzen du. Bertan, burni-hesi batez babesturiko gurutze-tokia dago. Eraikuntzaxumekoa den arren, kanpatak, ur bedeinkatua giltzen duen ontziak -kondaira Esteban Garmendia izenarekin azaltzen da- eta armarriak, barrokoa, itxura berezia ematen diote.

Eremu honek badu nolabaiteko alderik aurreko sailarekiko. Dezentekak dira bi solairutik gorako eraikuntzak eta berriki konpondu edota eraikitako etxeak. Halaz ere, beste batzuk itxura historikoari eutsi diote, hainbat adibide adierazgarri daudelarik.

San Juan kaleko 27. zbk. ko Langattu etxeak, 35. zbk. koak eta 25. ekoak -Basabe-Enea Etxea- bezalaxe, harlanduzkoa dute behe solairua. Solairuetako egurrezko habeak eta kanpoko itxituretako markoak, hauek ere egurrezkoak- gordetzen dituzte.

Palazio-Zaharra etxea, Alegian hiri-jauregi bakarraren eremuan eraikitako etxe saila da. Fatxadan armarría gorde du.

UDALERRIA

Hedadura txikikoa da udalerría eta ibarretako eremu lauak salbu, gainermtean aldapa makurretako lekuetara hedatzen da. Zabalguneko modernoak Ametzeta ibaiburua ingurua betetzen du, udalerrí honetara zuzentzen den errepide baze- rrean.

Tradiziozko baserrien artean badira batzu besteren gainera nabarmentzen direnak. Gorotzenez (30-61) du erabilgarri den Gipuzkoako bihitegi bakarra. Ez da oso aspaldikoa, baina lau pilaren gainean tinkaturik, era honetako tokien ezaugarriak eza- gutzeko bide ematen du, oraintsu arte landa- bizi-tan hain usu izan direnak. Begiristaingo multzoak (30-62), Begiristain Haundi eta Txikik, inguruko baserrien tradiziozko eitea era- kusten dute, ageriko egurrezko bilbadurak aurrekaldean dituztelarik. Begiristain Txikiri dagokionez, fatxada nagusiko teilatagala tai- laturik dago.

Beloztegi (24-90), bide-azpiegiturek, errepide nagusiak, N-leko autobideak eta Madril-Irun trenbideak inguratzen dutelarik, orain gutxi arte Oriako ibaiondo ustiatzen zuten tradiziozko baserri taldean barne-sartu da. Egurrezko bilbadura da bere estetika- baliorik handiena.



Kiskelenea etxea.

Iturria: Gipuzkoako Foru Aldundiak 1992. urtean argitaratutako
GIPUZKOAKO GIDALIBURU HISTORIKO MONUMENTALA

